

## ASPACE (Garun-paralisiaren eta antzeko gaitzen elkarte)



C/ Sofia Erreginaren hiribidea 100  
945 35 75 78

[asociacion@aspacealava.org](mailto:asociacion@aspacealava.org) / [www.aspacealava.org](http://www.aspacealava.org)

ASPACE elkarteak familia talde batek sortu zuen, beren eskubideen defentsaz eta beharrezko erantzuteaz sentsibilizatuta. Aspacek garun-paralisia eta antzeko gaitzak/asaldurak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetu du helburu, haien gizarteratzea errazteko, kaltetutako pertsonen familiei bizi-ziklo osoan lagunduz.

Nerbio-sistema garatzen ari denean entzefaloan gertatzen den lesio baten ondorioa da garuneko paralisia. Lesio horrek kalte aldakorak eragiten ditu muskulu-tonuan, jarreran eta mugimenduan, eta haurren garapenean eragiten du.

Funtsezko profesionalen talde baten alde egiten dute, unean uneko premien arabera, eta boluntariotzaren alde egiten dute, gaitz horrek jotako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko jarduera-ardatz baita, batez ere aisialdian eta denbora librean.

### Fundación Vital Fundazioaren lankidetzak

VITAL Fundazioaren lankidetzak etenik gabe ari da egiten 1993. urtetik, hainbat gaitan. 2012az geroztik, lankidetzak-eskaera Udako Programari laguntzean oinarritu da batez ere,

eta honako hiru azpiprograma hauek ditu:

- 18 urtetik beherakoak
- 18 urtetik gorakoak
- Beste erakunde batzuetako udalekuetara joatea, boluntario batek edo bik lagunduta, kasuaren arabera.

Aisialdirako alternatiba bat da, parte-hartzaileen hazkunde pertsonala eta 'famiariaren arnasa' errazten dituen. Gure ekarpen ekonomikoak boluntarioen eta begiraleen ezinbesteko laguntza ahalbidetzen du.

Halaber, ASPACE Araba kirol-klubari laguntzeko proiektuetan ere babesle da Vital Fundazioa.